



SUAK, HERRIZ HERRI

AJANGIZ

20:00. Parrillada, Kanpantxun.
Ostean. San Joan sua.

AMOROTO

20:30. Mokadutxoa egiteko elkartuko dira.
Iluntzean. San Joan sua piztu.

ARRATZU

21:00. Merienda eta suaren inguruan batuko dira, Oleskon.
Ondoren. Suaren piztuera.

AULESTI

17:00. Mahai jolas txapelketa.
21:00. Erromeria, plazan, Errota musika taldeagaz.
22:30. Kalejira, plazatik parkera.
Gero. San Joan sua eta dantzak.

BERMEO

21:00. Kalejira, kultur etxetik hasita eta Goiko plazan amaituta.
Ostean. Sua piztuko da.

BERRIATUA

22:30. Urepel plazan Sarats dantza taldearen emanaldia.
Ondoren. Sua errekondoan.

BUSTURIA

17:00-19:00. Aparra eta gaztelu puzgarria umeentzat, San Antonio hondartzan.
20:00. Txokolate jana eta ondoren, kankak eta sua hondartzan bertan.
Gero. Sua piztu.

EA

20:30. Trikipoteoa egingo dute, Kima eta Uxueren eskutik.
22:30 Su artifizialak eta sua.

EREÑO

21:00 San Joan suak, Gabikan.

ERRIGOITI

20:00. Txokolate janean bilduko dira, Sallobanteko aterpetxean.
21:00. San Joan sua piztuko dute Sallobanten.

ETXEBARRIA

21:00. Afaria, Errekarten.
22:00. Sua piztea, txalaparta doinu eta dantzaz alaituta. Bakoitzak bere lore sorta eroateko deia egin dute, eta nahi duena sorginez jantzita joan ahalko da.



Muxikako Oxigastia Curtisii taldekoren iazko antzezlan, Ajurian. AINTZINA MONASTERIO MAGUREGI

Sua, tradizioa eta mitoak uztartzen direnean

Urteko egunik luzeena eta gaurik laburrena suaren alboan pasatzeko prest daude Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko txokoetan. Horrela, txarrak urrun sentitu eta onak hurbildu asmoz, tradizioz beteko San Joan bezpera ekitaldiz josi dute eskualdeetako hainbat gunetan. Tradizioa, mitoak eta ospakizuna suarenugarrekin nahastu, eta gau magikoa bizitzear daude herritarrak.

FORUA

18:00. Eskulanak egingo dituzte, kultur etxean.
20:30. Txokolate janean bilduko dira, buruhandiak eta sua piztearekin batera.

GAUTEGIZ ARTEAGA

17:30. Eskulanak.
18:30. Umeentzako askaria.
19:30. Idatzi zure desioa, gero sutara botateko saioa.
20:00. Dantza saioa.
Gero. Sua piztea.

GERNIKA-LUMO

19:30. Elai Alai Dantzari Taldea, Lurgorin.
Gero. San Joan sua pizteko ekitaldiaren hasiera, Lurgorin. Musika, dantza, sagardoa eta barra txikia.
Gero. Flashak umeentzako.

GIZABURUAGA

20:00. Pikoteoan bilduko dira,

txoko aurreko plazan.
Gero. Sua piztuko dute.

IBARRANGELU

17:00 Euskal mitologiako pertsonaiak marraztuko dituzte, kultur etxean.
21:00 Sua piztea, sorgin dantza artean.
Amaitzeko. Txokolate janean elkartuko dira.

LEKEITIO

17:00. Jaia ospatuko dute, Lekeitioko Herri Eskolak eta Zapran Guraso Elkarateak antolatuta, eskolako jolastokian.
18:30. Jaia ospatuko dute, Lekeitioko Azkue Natura ikastolak antolatuta, Plazan.
19:00. Txistularien kalejira egingo dute, Itxaropena txistulari elkarateak antolatuta, kalerik kale.

MARKINA-XEMEIN

19:30. Maider Arcelay ipuin kontalaria.
22:00. Akerbeltzekin batera, kalejira herrikoia.
Ostean. Suaren inguruan dantzaldi eta jaialdia, Goiko portalean.
Kalejira ere egongo da.
Gero. Txokolate edana.

MENDATA

19:30. Elexalde auzoan bilduko dira.
Iluntzean. Sua piztuko dute Elexalden.
Ostean. Sardina jana.

MENDEXA

21:00. Sua, konjurua, sagardoa eta pintxoak.

MUNDAKA

18:30. Erreka auzoan, Sorgin txikiren kalejira.
Ostean. 3,4,5 eta 6 urteko

umeen dantza, sorgina erre bitartean.

Iluntzean. Sorgin, mosolo eta katuaren agerraldia, plazan.
Gero, gauerdian, sorgina erreko dute Talan.

MUNITIBAR

19:30. Habixi elkargunean, gitarra ikastaroko ikasleen emanaldia.
Ondoren. Zugaren kontzertua.
22:00. Sua eta sorgin dantza.
Bukaeran. Txokolate jana.

MURUETA

16:00-19:00. Ume eta gazteentzako jolasak eta puzgarriak.
Olgeta jolasak eta puzgarriak. Apar jaia.
19:00. Sua piztea.
20:00. Sardina eta txistorra jana, dena musikaz alaiturik.
Amaitzeko. Txokolate jana eta agurra.

MUTRIKU

21:30. Musika Banda eta Gure Ametsa Dantza Taldearekin kalejira, Goiko plazatik hasita.
Ondoren. Sua, dantza eta akelarrea, Burumendin.

MUXIKA

21:30. San Joan suen piztuera, Ajurian.
22:00. Bakailao jana.

NABARNIZ

19:30. Falda eta urdaiazpikoa.
Iluntzean. San Joan sua eliza atzeko aparkalekuan, musikagaz alaituta.

ONDARROA

Gauetz. Suak Antiguan, Kamiñaz-pin, Kafekoatzean eta Gorozikan.
22:30. Oihal eta trapezio ikuskizuna, Itsasaurre Plazan.
00:00. Akelarrea, Itsasaurre Plazan. (22:00etatik aurrera hondartzako aldageletan bilduko dira akelarrerako jantzeko).

SUKARRIETA

22:00. Herriko plazan bilduko dira, kalerik kale San Joan suraino joateko.
Ondoren. Suaren piztuera.
Gero. Txokolate janean batuko dira herritarrak.

ZIORTZA BOLIBAR

20:00. Txalapartariak plazan, sorginen eta pertsonaia mitologikoen etorrerarako eta antzezpenerako.
Ondoren. Jana: urdaia, txistorra, gazta eta menbrilloa. Idoia eta Roberto Etxebarria trikitilariak girotuta.
22:00. San Juan suak sorgin dantza, eta sorginek prestatutako edabea.